



5 erronka
gero eta "Cáritas" gehiago
izan gaitezan



Cáritas
Bizkaia

5 ERRONKA GERO ETA “CARITAS” GEHIAGO IZAN GAITEZAN

Agiri labur honek, nortasunari buruzko “Nor gara?” izenburudun gogoetea osotu gura dau. Gure berariazko izatasuna eta jokamoldea inspiratu eta bideratu beharko leukeen 9 EZAUGARRI hareek, talde eta gizabanako askoren ekarpenari esker, 5 ERRONKATAN zehazten dira, geroari begira. Elizbarrutiko Kontseiluak erronka honeek identifikatu, aukeratu eta formulatu egin ditu, elizbarrutiko leku guztietatik jasotako proposamenak aintzat hartuta. Makinatxo batek antzemandako beharrianetako batzuei erantzuten deutse eta horregaitik, askoren eritziz, aurreneko arretea jaso beharko leukee datozan lau urteetan.

Burututako ahalegina ezin da asmo onen adierazpen hutsean geratu. Orain ezinbestekoa da proposamen honeei “gurpilak jartea”, EGITASMO ebaluagarria eginez eta egitasmo horretan lehentasunak, datak, bideak, egitekoak eta arduradunak zehaztuz. Zerbitzu Orokorrek lagunduko deuskue eginkizun honetan. Baina eurek lagundu baino ezin deuskue egin. Egitasmo honen bidezkitasuna gure lankide izateko prestasunaren araberkoa izango da. Ezin dogu ahaztu Caritasen kristau alkarteak eta boluntarioak nahitaezko protagonista dirala. Egitasmoa egin eta Kontseiluak abenduan onartu ondoren, Caritas osotzen daben lagun guztien laguntza beharko dau, gure erakundeak gero eta hobeto erantzun deion bere izatasunari. Horregaitik, gaurdanik, laguntza eskatzen deusuegu, datozan urteetan guztion ahaleginak batu dagiguzan, gure indarra dan berariazko nortasun hori janaritzeko eta aberasteko. Berak eusten deutso, beste ezerk baino gehiago, gure zerbitzuaren jasotzaile nagusi dan giza alkartearen geroaren aldeko gure ekarpenaren kalitateari.

Bilbao, 2001.eko maiatzaren 30a.

Joseba Segura

Gotzain Ordezkaria

1. erronka

KRISTAU MAITASUNAREN ESPIRITUALTASUNA JANARITU ETA BULTZATU GURE ALKARTEAN

1. erronkarako proposatutako ekintzak

- 1.a Egiten dogunaren irakurketa sinisteduna eragin, gure erizpide eta eragileak kristau esperientziaren argira aztertzeko.
- 1.b Gure erakundeetan, gizarte konpromisorako dagozan sinistedun sentzibilitate eta eragile anitzak gorde beharreko balioak hartu, aberastu egiten gaitualako.
- 1.c Otoitz egiteko uneak bilatu eta ziurtatu boluntarioen taldeetan.
- 1.d Erretiroak eta heziketarako ikastaroak eragin, gure kristau nortasunaren berariazko alderdiak lantzeko.
- 1.e Uste sendo honen esanguran sakondu: zuzentasuna motz geratzen da maitasun barik.
- 1.f Abadeak korapilatu egiteko honetan.

2. erronka

GURE ZUZENTASUNAREN ALDEKO JARDUNAK GAUR IZAN BEHAR DAUAN SALAKETA ETA SENTSIBILIZAZINO ALDERIA BULTZATU ETA ZEHAZTU

2. erronkarako proposatutako ekintzak

- 2.a Banku alternatibo eta solidarioa martxan jarri gura daben mugimendu eta taldeen ahaleginak babestu ⁽¹⁾.
- 2.b Talde makalenengan eragina daben lege aldaketez arduratu.
- 2.c Arlo honetan, etxebizitza eta inmigrazino gaiei lehentasuna emon.
- 2.d Gizarte Ongizate arloko Kontseilu Aholkulariak sortzea bultzatu, udal, barruti edo mankomunitate mailan.
- 2.e Bidebakokeriak salatzen dabezan beste erakunde batzuekin lankidetzan jardun, martxan jarri daitekezan plataforma eta ekintzetan parte hartuz.
- 2.f Berariazko informazino kanpainak garatu, gure alkarteak kontzientziatzeko.
- 2.g Heziketa ibilbideetan salaketearen beharizana nabarmendu, kristau alkartearen gizarte egitekoaren nahitaezko alderdi lez.
- 2.h Karitatearen alderdi unibertsala eragin, iparraldea-hegoaldea egoera bidebakoa salatuz eta hegoaldean garapen prozesuak bultzatuz.

(1). Kristau tankerako talde batzuk eta izaera humanistadun beste batzuk, formulak arakutzen dihardue, gizarte sentsibilitatea daben lagunek egitismo solidarioetan inbertitu dagiezan euren aurrezkiak. Inbertsino honeek betiko Banku eta Aurrezki Kutxen ordezkotako erakunde bidez bideratuko litzatekez (horregaitik "banku alternatibo eta solidarioa" izena), dagozan finantza erakundeek behar dan besteko berme etikorik ez dabela emoten uste dalako.

3. erronka

KARITASEN EGITARAU, TALDE ETA AUKERAK HOBETO INTEGRATU LURRALDEETAKO ETA ELIZBARRUTIKO ELIZAKO PASTORAL BIZITZAN

3. erronkarako proposatutako ekintzak

- 3.a Eskualdeko arduradunak bilatu, abadeekin batera, erronka hau leku bakoitzean zehazten lagundu dagien, helburu honi beharrezko baliabide guztiak eskeiniz.
- 3.b Eskualdean martxan dagozan Caritasen egitasmoen eta jagokezan erabagi guztien barri zuzena emon kristau alkarteei.
- 3.c Kristau alkarteak, eskualdean kokatutako egitarauetan konprometitu daitezala, pertsona eta jardunbide zehatzen bidez.
- 3.d Hautagaien eliz konpromisoa egoki baloratu profesional barrien aukeraketa prozesuetan.
- 3.e Caritasen presentzia ekintzailea eragin Pastoral Kontseiluetan.
- 3.f Alkarteetako liturgia eta ebanjelizatze taldeak konprometitu Caritasen kanpainetan.

4. erronka

PROTAGONISMO GEHIAGO EMON BOLUNTARIOEI

4. erronkarako proposatutako ekintzak

- 4.a Boluntarioen sentsibilizazioa eta heziketea sendotu.
- 4.b Boluntarioei laguntza emoteko ibilbidea eratu.
- 4.c Boluntarioen sustapenerako taldeak sortu edo finkatu.
- 4.d Boluntarioen inplikazioa eragin erabagiak hartzeko prozesuetan eta egitasmoen ebaluaketan.
- 4.e Talde eta egitarauetan kristau nortasuna daben boluntario gazteak erakarteko eta sartzeko baldintzak sortu.

5. erronka

GURE EGITARAUEN JASOTZAILEENGANAKO JARREREA ALDATU

5. erronkarako proposatutako ekintzak

- 5.a Gure egitasmoak aztertu, gizarteratzerako osoko ibilbideak bermatzeko.
- 5.b Gure ekintzaren jasotzaileek euren ibilbideetan parte hartzea bultzatu, euren bizitzen gaineko agintea hartzen lagunduz.
- 5.c Harrerea egiteko baldintak eta erak hobetu: lokalak egokitu, beharrezkoak ez diran itxarroteak ekidin, itxarongeletan aldiberekotasunak saihestuz, e.a.
- 5.d Hartuemon maitekor eta beroa bermatu uneoro, gure jardurearen adierazgarri lez: errespetua, hurkotasuna, ez epaitu.
- 5.e Iradokizunen gutunontzia sortu, erabiltzaileek berme osoaz aurkeztu dagiezan euren kritikak eta hobekuntzarako proposamenak.
- 5.f Boluntarioen heziketan lehentasuna emon gure jardunetan, agerian zein ezkutuan, egon daitekeen paternalismo kutsu oro gainditzeari.